

Tokiko Agenda 21eko Foroaren akta

2015eko irailaren 24an, 18:30etik 20:10era, Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan.



Gai nagusia: Uhin elektromagnetikoak eta osasuna.
Zer dira? Nola eragiten dute gugan? Zer egin daiteke?

1. Gaur, irailaren 24an...

2015eko Legazpiko Tokiko Agenda 21eko Foroaren laugarren tailerra egin dugu eta egun pil-pilean dagoen gai bati buruz hitz egin dugu: **uhin elektromagnetikoak eta osasuna**. Gai korapilatsu batera hurbiltzeko lehenengo saioa izan da; horren gainean ikuspuntu eta iritzi desberdinak daude eta oraindik asko dago ikertzeko eta jakiteko.

Baina gaian sartu aurretik, Koldobike Olabide Legazpiko alkate andreak ongiatorria egin digu eta bertaratu diren herritarrekin kontu garrantzitsu batzuk partekatu ditu. Horrela,

- Agenda 21eko Foroak orain arte izan duen dinamika mantentzeko **konpromisoa** hartzen duela adierazi du.
- Edozein gaiari buruz berarekin hitz egin nahi duten herritarrek **ostegunetan –“Herritarren eguna”–** ordu erdiko tarte bat izateko aukera izango dutela esan du; horretarako, hitzordua hartu beharko da.
- Eta, azkenik, Legazpiko Udala **barne-antolaketa berritzeko prozesu** batean sartu dela jakinarazi du. Helburuak, besteak beste, hauek dira: egitura sinplifikatzea, prozesuak eta herritarrei eskainitako zerbitzua hobetzea eta talde-lana sustatzea.

2. Nortzuk? Parte hartu duten pertsonak

Legazpiko Agenda 21eko Foroa, tailerrez tailer, bertan parte hartzen duten pertsonekin aberasten da. Gaur ez da salbuespena izan: ikasteaz gain, hausnartzeak eta begiradak partekatu ditugu, espazio honi balioa emanaz.

Mari Cruz Lizarazu • Montse Vallejo • Manuel Fernandez (Nagusilan) • Lucia Areizaga • Eurne Huesa (Legazpiko Ingurugela) • Jose Ramon Hernandez • Juan Pedro Agirre • Igor Rojo • Isabel Tatiegi • Juncal Fernandez • Floren Gutierrez • Xabier Baztarrika (Buskabaso) • Juan Carlos Agirre • Pilar Makibar • Rosa Makibar • Koldobike Olabide (Legazpiko alkate and.) • Ane Urkiola (zinegotzia) • Kepa Urzelai (zinegotzia) • Oscar Valbuena (zinegotzia) • Alberto Bezunartea (zinegotzia) • Inma Hernandez (Tokiko Agenda 21eko teknikaria) • Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea, tailerra sustatzeko lanetan.



Eskerrik asko

3. Berriak: egunean jartzeko

Foroko tailer guztietan egin izan ohi duen legez, Inma Hernandez Agenda 21eko teknikariak Foroaren azkeneko tailerra egin zenetik hona eta udan Legazpin iraunkortasun alorraren inguruan gertatu denaren berri eman digu.

Laburbilduta:

Udan Legazpin gertatutakoak...

- “Baietz txukun” kanpaina Legazpi garbi mantentzeko.

Aurten, Udalak Haztegi ikastolako ikasleen parte hartzea jaso du. Haiek arduratu dira Latxartegi parkea garbitzeaz eta ikastolako txoko guztiak txukuntzeaz. Hori guztia *Elkartasunaren astearen* barruan.



- Bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroa, helduei zuzendua.

Ikastaroa eskualdean eskaini zen, garapen iraunkorraren Europako astearen barruan. Bigarren Edizioak ere oso erantzun ona jaso du eta azpimarragarria izan da emakumeen parte hartzea.

- Fokatu Urola Garaia: “Bizitzeko herriak”.

XI. Argazki lehiaketaren gaia hauxe izan da: “Bizitzeko herriak”, hori izan baita iazko ikasturtean zehar Eskolako Agenda 21ak landu duen gaia.

Udan Legazpin gertatutakoak...

Hauek dira saria jaso duten 4 irudiak:



Modu osagarrian, "Legazpi, bertan bizitzekok herria" ekimenaren barruan ekintza desberdinak gauzatu dira kalean: antzinako argazkien erakusketa, birziklatutako materialekin jostailuak egiteko tailerra, kale-jolasak,...

- Bizikletaren erabilera sustatzeko kanpaina, mugikortasun iraunkorraren astean, irailaren 16tik 22ra.

Aurten, urteroko bizikleta martxa egiteaz gain, Legazpiko kaleetatik bizikletan ibili direnei sari bat eskaini zaie; eta haien lekukotza eta bizikletan ibiltzeko arrazoiekin beheko loturan ikus daitekeen bideo bat egin da:

<https://www.youtube.com/watch?v=UiTfUpjtqWo&feature=youtu.be>



- Erreka eguna 2015.

Aurten ere, legazpiar talde handi baten parte hartzeari esker, 532 kilo zabor atera dira errekatik. Alajaina!

Udan Legazpin gertatutakoak...

- Legazpiko Udala “Compact of Mayors” itunera atxiki da.
Bi dira itunaren helburu nagusiak: batetik, Udalek klima-aldaketa moteltzeko eta aldaketara egokitzeko borondatezko konpromisoak eskura ditzatela eta, bestetik, aurrerapenen berri ematea, esperientzien trukatzea lagunduz.
Euskadin, Legazpi barne, 10 udalerrri izan dira itunarekin bat egin dutenak.

“Berriak” atalarekin bukatzeko, Legazpiko Agenda 21eko Foroaren hurrengo tailerretako egunen eta gaien aurreikuspena adierazi da.



Legazpiko Agenda 21eko Foroaren hurrengo tailerrak: egutegia eta gaiak.

- **Urriaren 22an:** Zarataren mapa
Adi!: astebete atzeratu dugu urteko plangintzan urrirako aurreikusitako eguna, zarataren mapa landu ahal izateko.
- **Azaroaren 12an:** Hondakinak
- **Abenduaren 10ean:** Energia-eraginkortasuna

Eta horrekin, aurrera egiten dugu!

4. Gaurko gaia: uhin elektromagnetikoak eta osasuna

Zer dira uhin elektromagnetikoak? Eta zer da kutsadura elektromagnetikoa? Zein da osasunean uhin horiek duten eragina? Guztiaz ere, zeintzuk dira gomendioak? Zer egin dezakegu?

Komunikazioaren teknologia berrien hedapenarekin, galdera horiek eta beste batzuk pil-pilean daude gizartean, komunikabideetan, kalean, ikastetxeetan,.... Izan ere, uhin elektromagnetikoen gaia Legazpiko Udalak aspaldian parte hartzen duen *Haurtzaroa eta Ingurumena* –INMA- ikerketan aztertu diren alderdietako bat da.

Testuinguru horretan, Foroan gai horretan murgiltzea nahi izan dugu. Eta horretarako, Legazpiko Ingurugelako Eudne Huesak pilatu duen materiala (informazioa eta dokumentazioa, azterketak eta bideoak) erabili dugu.


Pozgarria izan da bere eskutik honakoak jasotzea:

- **Funtsezko eta oinarrizko kontzeptu** batzuk.
- Uhinei eta osasunean haiek duten eraginari buruz dauden **ikuspegi desberdinak**.
- "Zuhurtasun printzipioa" aplikatuz, egunez egun har ditzakegun **jarraibide gokiak**.

Eta, ondoren, taldearen iritzia partekatzea.

Milesker Eudne!

Irudiak erabiliz, "tailerraren uzta" hemen geratzen da jasota, bere ñabardurekin:





Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Eta osagarri gisa, jarraian **idea garrantzitsu batzuk** azpimarratzen dugu eta tailerrean erabilitako dokumentuak eta bideoak jasotzen ditugu. Horrela, ikasten jarrai dezakegu!

Uhin elektromagnetikoak eta osasuna

- Bideo interesgarri batzuk

- "La otra factura del wifi" (RTVE) bideoa:

<http://www.rtve.es/television/20140513/otra-factura-del-wifi/938380.shtml>

"El escarabajo verde" saioan eman zen 2014an; uhin elektromagnetikoak eta osasunean duten eragina aztertzen dira eta gaiari buruz dauden iritzi desberdinak jasotzen dira.

- "Las ondas del mal" (EITB) bideoa:

<http://www.youtube.com/watch?v=Gou5df6Ofe8>

2011n eman zen "Escépticos" izeneko saioan; uhin elektromagnetikoak eta osasunean duten eragina aztertzen dira eta gaiari buruz dauden iritzi desberdinak jasotzen dira.

- "Uhin elektromagnetikoak" (EITB) bideoa:

<http://www.youtube.com/watch?v=pWgYPH24FF0>

Uhinak neurtzeari buruz hitz egiten da eta egunero bete beharreko jarraibideen berri ematen da.

- Uhin elektromagnetikoak, zer dira?

- Hedatzeko baliabide materialen beharra ez duten uhinak dira: ikusten den argia, irrati, telebista eta telefoniako uhinak. Informazio gehiago:

http://teleformacion.edu.aytolacoruna.es/FISICA/document/fisicaInteractiva/Ondasbachillerato/ondasEM/ondasEleMag_indice.htm

- Nola eragiten dute osasunean?

- Iturri artifizialetatik sortutako uhin elektromagnetikoak –tresna elektrikoak, sakelako telefonoak, wifi sareak, antenak...- ugaritu egin dira gure gizartean.

- **Kutsadura elektromagnetikoari eta osasunean duen eraginari dagokionez, zientzialarien artean iritzi eta korrante desberdinak daude:**

- Badira, uhin elektromagnetikoak osasunerako kaltegarriak ez direla esaten dutenak.

- Eta beste batzuk, aldiz, osasunerako arriskutsuak eta kaltegarriak direla uste dute –bereziki, haurrentzako eta elektrizitatera sentibera direnentzako–.

Uhin elektromagnetikoak eta osasuna

Informazio zehatza jaso nahi izanez gero, aipatu bideoak ikus daitezke edo ondoko dokumentuak kontsultatu:

- **Kutsadura elektromagnetikoa eta osasuna:**
https://es.wikipedia.org/wiki/Contaminaci%C3%B3n_electromagn%C3%A9tica
- **Kutsadura elektromagnetikoa eta minbizia:**
http://www.peccem.org/DocumentacionDescarga/Legislacion/IARC.WHO_31.05.11_cast.pdf

• Zeintzuk dira bete ditzakegun jarraibideak?

- Ezer baino lehen, gomendio nagusia "**zuhurtasun printzipioa**" aplikatzea da. Honela definitzen du Europar Batasunak printzipio hori: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=URISERV:l32042>

Eta, horrezaz gain, komunikabideen laguntzarekin, garrantzitsua da herritarrek gai horretaz informazioa jaso dezatela, erantzukizunez jarduteko eta erabakitzeko.

- Zuhurtasun printzipioa betetzeko, nahikoa izango litzateke egunero **neurri erraz batzuk** hartzea:
 - Ondoko tresnak gehiegi ez erabili: sakelako telefonoak, mikrouhin-labea, wifi sarea,... Azken finean ez dakigu urte batzuk igaro ondoren uhin horiek nola eragingo duten gure osasunean.
 - Xurgatze-tasa txikia (SAR) duen sakelako telefonoa aukeratu eta tresna arduraz erabili –adibidez, asko erabili behar baduzu badira beste aukerak, hala nola, entzungailuak erabili, armazoiak,...-. Kargagailua saretik kendu tresna erabat kargatu denean. Eta lotara goazenean sakelakoa burutik gertu ez izan.
 - Ahal bada, internet kable bidez izan; eta, behar ez dugunean, wifi sarea itzali.
 - Martxan dagoen bitartean mikrouhin labetik urrun egon; edo gutxiago erabili.
 - Eta gure udalerriko espazio publikoan, "eremu zuriak" sortu, hau da, uhin gabeko eremuak. Edo Katalunian egin denaren antzera, "kutsadura elektromagnetikoaren mapak" egin.
- **Informazio gehiago** ondorengo loturetan:
 - Osakidetza gomendioak: http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-cksalu10/es/contenidos/informacion/cem_salud/es_cem/recomendaciones.html



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Uhin elektromagnetikoak eta osasuna

- Eskola 2.0. programari eta ikastetxeetan wifi sarea erabiltzeari buruz Arartekoak ebatzi duena:
http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_3020_3.pdf

Edurnek eskaini dizkigun datuen eta ikusi ditugun bideo-zatien ondoren, **elkarrizketa interesgarria sortu da taldean**. Horrela, partekatu ditugun gauzen artean, hona hemen interesgarrienak:

- "Ezagutzen ditugu gertuko kasuak non kableak ondorio kaltegarriak sortu dituen osasunean; horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiko bulego batzuetan lan egiten zuten pertsona batzuei **lipoatrofia** gaitza diagnostikatu zieten eta horri aurre egiteko neurri zuzentzaileak hartzen ari dira".
- "Egia da pertsona bakoitzak, bakarka, neurriak har ditzakeela; baina, zer pasatzen da gero bizilagunak wifi sarea baldin badu eta haren seinalea nire etxera iristen bada? Edo zer pasatzen da gure udalerrietako kaleetan wifi sareak eta antenak gero eta ugariago direnean? Horren adibidea da, San Ignazio 3ko bizilagun batek esan duena. Kasu horretan, telefonia enpresa batek zentralita bat du gertu eta hark ateratzen duen zaraten ondorioz ezin dute auzoko bakeaz gozatu eta horrek eragina du bizilagunen bizi-kalitatean".
- "Azterketa askok diote ezarritako erradiazio elektromagnetikoaren mailetatik azpitik gaudela. Baina, eta maila horiek altuagoak badira? Zergatik ez da legeria zorrotzago bat planteatzen?"
- "Zergatik ez dute telekomunikazioetako multinazionalak babes-neurriak ikertzen eta horietan inbertitzen (adibidez sakelako telefonoen kasuan)? Irtenbide bat izango litzateke, ezinezkoa baita teknologiarri eta haren aurrerapenari mugak jartzea."
- "Eta gai hori nola aztertzen da hezkuntza sisteman, haurrak kaltetuenak izan daitezkeela aintzat hartuta? Interesgarria izango litzateke gai hori hezkuntza komunitatearekin lantzea."

Azken finean, gure esku dago **teknologia zentzuz eta arrazionaltasunez erabiltzea**.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Bukatzen ari gara... baina interesgarria izango litzateke gai honetan sakontzen jarraitzea datu gehiago eta azterketa fidagarriak agertzen direnean; agian INMA azterketaren emaitzak jasotzen direnean aitzakia dugu horretarako. Kontuan izango dugu!

5. Agur esateko unea iritsi da...

Hurrengo tailerra egiteko egunera arte. Egun hori **urriaren 22a** izango da eta egun horretarako honako proposamena egiten dizuegu: Legazpiko Udala egiten ari den **Zarataren mapa** ezagutzea eta hura osatzeko gure ekarpenak – Agenda 21eko Foroarenak – proposatzea.

Zain izango gaituzue!

Eskerrik asko!